

Etheen Koiuntura Ekonomikoari buruzko Inkesta. Gabonetako gastuen modulua

2023ko 4. hiruhilekoa

Nafarroako kontsumitzaileen % 72,0k egiten dute aparteko gasturen bat gabonetan

Loteria da gehien egiten den erosketa, opari-jostailuekin eta elikadura-produktuekin batera

Covid-19ak eragindako egoeraren inpaktua desagertu egin da gabonetako erosketetan, eta pandemiaren aurrekoen antzeko kontsumo-patroietara hurbildu dira.

2023ko abenduaren 29a

‘Gabonetako gastuak’ modulua. Nafarroako Estatistika Erakundeak egiten duen Kontsumitzailearen Koiuntura Ekonomikoari buruzko Inkestak, inkestaren ohiko adierazleez gain, urteko azken hiruhilekoan gabonetako erosketei lotutako gaiak sakontzen ditu, Nafarroako kontsumitzaileek gastu mota horretan duten portaera aztertzeko.


GABONETAKO GASTUAK

2023. urtean, Nafarroako kontsumitzaileen % 72,0k egiten dute aparteko gasturen bat gabonetan. Ehuneko hori joan den urtekoa baino handiagoa da (% 71,7 joan den urtean), baina 2019koa baino txikiagoa (% 81,6 urte horretan).



1. GRAFIKOA

Egin al duzu gabonetako erosketaren bat edo aurreikusten al duzu egitea? Ehunekoa




Iturria: Nafarroako Kontsumitzailearen Koiunturari buruzko Inkesta (Nastat).

Gabonetako erosketaren arabera ikus daitekeenez, aparteko gasturen bat egiten duten kontsumitzaileen % 82,6k loteria erosten dute, % 81,8k opariak eta jostailuak, eta % 72,8k elikadura-produktuak. Elektronika pertsonaleko produktuen, bidaien eta etxerako produktu elektronikoen ehunekoak askoz txikiagoak dira.

2. GRAFIKOA

Kontsumitzaileak, gabonetako gastu motaren arabera (ehunekoa)



Iturria: Nafarroako Kontsumitzailearen Koiunturari buruzko Inkesta (Nastat).



CONTACTO I HARREMANETARAKO

estadistica@navarra.es

848 42 34 00



Aurreko urtearekin alderatuta, gora egin du honako hauek eskuratu dituzten Nafarroako kontsumitzaileen ehunekoak: jostailuak eta opariak (6,3 puntu), bidaiak (2,5 puntu), elikadura-produktuak (2,4 puntu) eta elektronika pertsonaleko produktuak (0,1 puntu). Behera egin du, aldiz, honako hauek eskuratu dituztenen ehunekoak: etxerako produktu elektronikoak (-1,9 puntu) eta loteria (-3,1 puntu).


2023. urtean, gabonetako egun nagusietarako elikagaien aparteko erosketak egin dituzten edo egitea aurreikusi duten kontsumitzaileen % 56,6rentzat, erabakia prezioaren arabera da, eta % 43,0k aurreikusitakoa erosten dute, prezioak kontuan hartu gabe. Kontsumitzaileen % 0,4k baino ez du erabakitzen erosketak osasun-krisiak eragindako egoeraren arabera (% 1,2k 2022an). Beraz, 2019. urtearen amaierakoan antzeko kontsumo-patrietara itzultzen ari da egoera.

GABONETAKO GASTUAK AURRERATZEA

Inkesta egin dutenen % 46,6k aurreratu dituzte gabonekin zerikusia duten produktuen erosketak. 2023. urtean, portaera horren arrazoi nagusia prezioen igoera saihestea izan da (hori adierazi dutenak inkesta egin dutenen % 42,9 izan dira, eta % 52,2 izan ziren 2022an), eta, neurri txikiagoan, sustapenak eta deskontuak baliatzea (% 17,2) eta eginkizunak aurreratzea (% 16,8).

3. GRAFIKOA

Gabonetako erosketak aurreratzeko arrazoi nagusia (ehunekoa)



Iturria: Nafarroako Kontsumitzailearen Koiunturari buruzko Inkesta (Nastat).




GABONETAKO GASTU-MAILA

Joan den urteko gabonetako gastu-mailarekin alderatuta, gabonetako erosketak egingo dituzten nafarren % 18,4k uste dute 2023an gutxiago gastatuko dutela (% 22,3 ziren 2022an), % 38,3k uste dute diru kopuru bera gastatuko dutela (% 36,3 ziren 2022an), eta % 43,2k adierazi dute gehiago gastatuko dutela (% 41,4 ziren 2022an).

4. GRAFIKOA

Gastu-maila, aurreko gabonekin alderatuta (ehunekoa)



Iturria: Nafarroako Kontsumitzailearen Koiunturari buruzko Inkesta (Nastat).


Aurreko urtean baino diru gehiago gastatuko dutela uste dutenek adierazi dutenez, horren arrazoi nagusia *prezioen igoera* da (% 87,9rentzat; % 80,4 ziren 2022an).

Gabonetako erosketetan 2022an baino diru gutxiago gastatuko dutela adierazi duten kontsumitzaileen % 55,3k *beren egoera ekonomikoak okerrera egin izana* aipatu dute arrazoi nagusi gisa, eta % 43,5ek, berriz, *erosketa gutxiago egin* behar dituztela.



5. GRAFIKOA

Gabonetako gastuak gora edo behera egiteko arrazoiak (ehunekoa)




Iturria: Nafarroako Kontsumitzailearen Koiunturari buruzko Inkesta (Nastat).

Gabonetako erosketak egingo dituzten pertsonen % 47,2k uste dute beren ekonomia pertsonalak zailtasunik gabe jasango dituela gastu horiek; ehuneko horrek 7,0 portzentaje-puntuko jaitsiera izan du aurreko urtekoarekin alderatuta.

6. GRAFIKOA

Gabonetako gastuak jasateko zailtasuna (ehunekoa)



Iturria: Nafarroako Kontsumitzailearen Koiunturari buruzko Inkesta (Nastat).




URTARRILEKO ALDAPA

Azkenik, urtarrileko aldapari dagokionez, % 50,9k uste dute aurreko urteetan bezala gaindituko dutela, % 46,3k uste dute zailagoa izango dela gainditzea (% 48,5 ziren 2022an), eta % 2,8k uste dute errazagoa izango dela.

7. GRAFIKOA

Urtarrileko aldapa gainditzeko zailtasuna (ehunekoa)



Iturria: Nafarroako Kontsumitzailearen Koiunturari buruzko Inkesta (Nastat).





OHAR METODOLOGIKOA

Etheen Koiuntura Ekonomikoari buruzko Inkesta Nastatek hiru hilean behin 640 etxeko ausazko lagin bati egindako estatistika-eragiketa da.

Urteko laugarren hiruhilekoan, gabonetako gastuei lotutako gaiak sakontzen dira, Nafarroako kontsumitzaileek gai horretan izan duten portaeraren bilakaera aztertzeko.

Fitxa teknikoa

- **Unibertsoa:**
18 urte edo hortik gorako biztanleria, Nafarroako Foru Komunitateko familia-etxebizitzetan bizi dena.
- **Inkesta mota:**
telefonoz eta Internet bidez.
- **Laginaren ezaugarriak:**
ausazko hautaketa, sexuaren eta adin-taldearen arabera estratifikazioarekin.
- **Laginaren tamaina:**
640 kasu.
- **Errore estatistikoa:**
 $\pm 4,0$ (laginaren tamainaren arabera eta Populazio Mugagabeen Laginen Teoriaren arabera kalkulatuta, probabilitate txikieneko kasuan $p = q = 0,5$).
- **Konfiantza-maila:**
% 95,5 ($K=2$).
- **Aldizkakotasuna:**
hiru hilean behin.



INFORMAZIO GEHIAGO

Nastat

Etheen Koiuntura Ekonomikoari buruzko Inkesta. 2023ko 4. hiruhilekoa.



CONTACTO I HARREMANETARAKO

estadistica@navarra.es

848 42 34 00